



233. zenbakia

· URRIA 2023 ·

pulunpe



Utzamaldeko
ahinak astintzen



**Esan Erran
I R R A T I A**
107.9 FM

Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Jausitako orbelak



Jausitako orbelak,
 sustraiekiko samurtasunari emanak,
 elkarri bizkarra erakusten:
 hil baino lehen ausart izan nahi
 ez zutenaren adierazle,
 norbaitek
 —agian—
 hatz batekin letraren bat edo beste,
 izenen bat, hitzen bat edo beste
 marraztuko duen esperantzarekin,

haizeak birpasatuko duela zoruan,
 bizitza honetatik at dagoen adoreaekin:

erdi txistuka...
 erdi abeslari...
 erdi barrurantz...
 urrunetik zaintzen

oraindik arrotz zaiguna,
 zaiona.



Fast Fatum. Susa, 2023
 Libe Goitia Artetxe



Hautatu



3 hedabide

Komunitate
 Helburu
 Proiektu
 Hizkuntza
 Eskualde

bera

komunikazioa



pulunpe



amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Denok bat elkarteak, Edurne Gerendiain, eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Esan Erranen 25. urteurrena ospatzeko Jazztatu, irailaren 23an. Omen kolektiboaren Dar Dar proiektua.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira urriaren 17an bidalia

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Pagadiak, ur eske*

07

Ingurumena. *Parke nazionala, Ekuadorren*

08

Kronika. *Denok bat*

10

Herrian Bertan. *Cederna Garalur*

11

Albisteak.

16

Ekimenak. *Bertso eskola*



20

Erreportajea. *Udabeko bertso idatziak.*

23

Ardo Frexkoa. *Euskaraz jakiteaz, pozik*

24

Aspaldiko Kontuak. *Alkozko Artxaikoa*

26

Berezia. *Irunberri, 1990: Arroilaren negarra. Pako Aristi*

28

Kirola. *Gartzarongo txapelketa.*

30

Zer ikusi *amezti.eus-en*

32

Zer irakurri. *Urria*

34

Jaiotzak eta heriotzak. *Abuztua*



Joan den udako lehorte nabari da gure mendietan

Joan den udako beroaldiaren ondorioz hori-horiak ikusi genituen gure soroak. Horrek izan zituen ondorioak landu ditugu Pulunpen, batez ere, abeltzainendako. Aurten atsegin hartu dute, zorionez, hezeagoa izan delako. Baina, nahiz eta duela urtebeteko beroaz ari garen, nabariak dira, oraindik, zenbait ondorio. Adibidez, zenbait pagadi ihartu dira gure oihanetan.

Asko hitz egin da joan den udako beroaz eta lehorteaz, eta, Pulunpen ere, gaia landu dugu. Joan zen udazkenean abeltzainei ekarri zizkien kalteez mintzatu ginen. Belarrik ez zen izan eta bazka erosi behar izan zuten aziendendako, Horrek gastuen igoera ekarri zien, pentsua izugarri igo zelako, gainera. Esan digutenez, aurten lasaiago daude, nahikoa hezetasun izan dutelako, joan den udarekin zerikusirik ez duela izan, eta nahikoa belar hazi delako.

Gure mendietan, ordea, urtebete geroago ikusi daiteke lehorte hartako ondorioak. Xabi Azpirotz, oihanzaina: "Pagoak izan dira gehien sufritu dutenak. Gutxiago hazi dira, hostoa lehenago bota dute, eta batzuk ihartuta dirudite. Pagadietan ikusten da batez ere, beste espezieetan ez hainbeste. Lur gutxi duten tokietan, hor nabaritzen da gehiago, hosto gutxiago eta indar gutxiago dutela. Udaberrian ez zuten (ur) erreserba handirik eta mugimendu txikia izan dute".

Fruituan, urte oparoa

Azpirotzek azaldu digunez, gainera, pagoak kaltetu dituen beste arrazoi bat ere badago: "Pagoek bi urtean behin fruitua ekartzen dute, pagatxa. Eta, lauzpasei urtean behin, urte oparoa izaten dute. Aurten biek egin dute bat, lehorte eta urte oso emankorra izan dutela. Fruitu pila ekarri dute eta horrek ere indarra kentzen die".

Igoako Leontzio Uhartek GR bideak markatzen aritzen da, eta mendian ibiltzea oso gustukoa du. Bera ere ohartu da pagoen egoeraz: "Bai, behinik behin nahiko motel daude aurten eta batzuk ihartuta. Gero, kristoren ezkur pila dute eta hori ere kaltetan izango dute. Aurten ikaragarria izan da, kristoren ezkur pila dute, baina kristorena gainera! Eta lurra justua duten horietan nabaritzen da joan den udako lehortearen ondoren, aurten asko sufritu dutela".

“ Leontzio Uhartek, GR markatzailea:
Horren idor ez ditut inoiz ikusi



Momentuz, ez da kezkatzekoa

Azpirotzek adierazi duenez, momentuz ez da kezkatzekoa. Naturan noizbehinka horrelakoak gertatzen direla azaldu digu, eta urteetan jarraitua ez den bitartean, ez dugu zertan kezkatu: "Lur gutxi duten tokietan, hor nabaritzen da gehiago. Badira korro edo talde puska batzuk, eta horietan izan daiteke %30 inguru kaltetu izana, baina orokorrean ez dira hainbeste. Noizbehinka horrelakoak gertatzea ez da harrizkoa. Txarra izanen litzateke jarraitua izango balitz, hau da, hiru urtez, bata bestearen atzetik, horrelakorik gertatuko balitz, adibidez. Aurten (uda) hezeagoa izan da eta askoz hobeki mantendu dira. Klima aldaketa honekin... ematen du baietz, gero eta maizago emanen direla horrelako udak, baina zerbait puntuala den bitartean natura bera errekuperatzen da; bestela, aldaketa ikusiko dugu, bai".



Isabel Oiartzun herritarra ere egunero joaten da mendira. Larraintzarko eskolako irakasle zela ere, ikasleak basora eramaten zituen, han ere ikasteko. Erripakoa da jatorriz, baina Aritzun bizi da, eta, Anue inguruan ere ikusi ditu pagadiak motel: Dena den, berak ere naturaren errekuiperatzeko gaitasuna nabarmendu du: “Duela 23-24 urte lehorte handiak izan ziren eta pago batzuk garaia baino askoz lehenago historik gabe gelditu ziren. Hurrengo urtean, ikustera joan nintzen eta ordurako hostoa zuten. Beraz, orain, zuhaitz horiek guztiz lehorrak dauden jakiteko, urtebete itxaron behar dugu. Nik hemen uztailan nahiko motel ikusi nituen honezkero. Baina, esandakoa, hori da duela urteak ikusi nuena. Horregatik, aurrerago begiratuko dut, ea nola dauden. Hemen bada alderdi bat, Iturrondo, lehor samar izaten bada berehala hostoa galtzen dute, abuztuan adibidez, baina hurrengo urtean berdin-berdin hostatzen dira.

Leontzio Uhartek ere errekuiperatzen ikusi ditu beste batzuetan, baina aitortzen du ez dituela inoiz horrela ikusi: “Orain dela 14 urte izugarritzko beroak izan ziren eta udak lehorte zituen, baina neguan hezetasun handia egin zuen eta errekuiperatu ziren. Baina aurtengo lehorte horren ondoren, horren idor ez ditut inoiz ikusi, ez”.

Plataneroak eta haritzak, indartsu

Beharbada irakurleren bat ohartu da eta atentzioa eman dio, aurten, plataneroek duten itxura, azala askatu baitzaie guztiz. Xabier Azpirotz oihanzainak azaldu digu: “Plataneroek azala askatzen dute urte batetik bestera, plaka batzuk balira bezala botatzen dute. Joan den udako lehortearekin oso gutxi hazi ziren eta ez zuten kasik azala bota, aurten udaberri ona izan da eta nahiko azkar eta kolpean hazi dira, eta, horregatik, bota dute azala plaka handietan. Ikusgarria izan da, bai. Naturaren zikloarekin zerikusia duten gauzak dira hauek”.

Agorraldiak zergatik ez dituen haritzak kaltetu ere azaldu digu: “Normalean haritza toki beheagoetan izaten da eta, lur horiek, hezeagoak dira. Horregatik hobekixeago irauten du.

Kezkatzekoa, lizarra

Xabier Azpirotz basozainak beste espezie baten egoerarekin dago kezkatuta, ordea, lizarrekin: “Aurten, oraindik, ez, baina datozen urteetan jendea lizarrekin kezkatuko da. Orain urte pare bat zerbait sumatu zen eta aurten asko zabaldu da. Datorren urtean arazo larriago bat izanen da. Onddo bat da, txarala deitzen zaio, European kristoren kalteak egin ditu eta orain hona iritsi da, eta hurrengo urteetan asko ikusiko da”.

“ **Xabier Azpirotz, mendizaina:**
Zerbait puntuala den bitartean
natura bera errekuiperatzen da;
bestela, aldaketa ikusiko dugu ”



Isabel Oiartzunek ere haritzen itxura ona nabarmendu du; eta, ez beste espezie batzuen: “Aurten hosto ederrekin ikusten direnak haritzak dira, haritzak oso ongi daude. Bestetik, hemen badira urte batzuk haltzak ihartzen hasi direla. Urrutirago hasi ziren, mendialdean, eta, pixkanaka-pixkanaka herritik hurbilago ere ihartzen hasi dira”.

“ **Isabel Oiartzun, mendizalea:**
Guztiz lehorrak dauden
jakiteko, urtebete itxaron
behar dugu ”





Basoaren ustiapena, zalantzan?

Erasoko Jesus Fernandez de Muniain ere asko joaten da mendira, eta, arazoa, gizakiaren esku hartzean ikusten du. Mendia ustiatzerakoan landareei egiten zaien kaltea azpimarratu nahi izan du; eta, aldi berean, oihanaren ustiapena hori beharrezkoa den galdetzen du.

Makinek basoa suntsitzen dute

Lehorteeek baino gehiago, makinek egin diete kalte landareei, Fernandez Muniainen arabera: "Pagadiak lehortzea, estres hidriko puntual batengatik, prozesu natural baten ondorioz gertatzen da, hautaketa naturala da. Higiene biologikoko prozesuak dira, hamarkadetan pagadia desagertu daiteke hariztia sartzeko, hori naturan gertatzen diren prozesuak dira. Baina hemen arazoa beste bat da: bago asko makinengatik daude gaizki. Mendiari sartzen ditugun makinek jotzen dituzte eta zuhaitzak energia asko gastatu behar du sendatzeko, eta hori sendatzekotan. Baina, nahiz eta ez jo, ondotik pasatzen baldin bada, metro erdira edo metro batera, eta metro bateko zuloa egiten badu, makina horiek egiten duten bezala, zuhaitzaren aparatu erretikularra suntsitzen ari dira. Igual gero bizpahiru urtez iraunen du, baina hiltzen ez bada, tetraplegikoa geldituko da, horretaz jabetzen ez garenez... Orduan, nik uste dut, mendia ustiatzeko modua dela kalte egiten duena. Lehortzen ari diren asko, gutxienez hemen, gauza horiengatik izaten da. Lehorteeak, bai, ba justu zeuden batzuk hilko zituen, eta beste batzuek, aurten, hobera egingen dute. Hori ohiko prozesu natural bat da".

Ikuspuntu merkantilista

Mendia ustiatzeko moduak ez du zentzurik, bere ustez: "Basoan dena da ateratzea, oihana esplotatzea, eta horrela mendia suntsitzen da. Hor talka bat dago bi kontzepturen artean: mendia harrobi gisa erabiltzea, ustiapenerako, edo mendia disfrutatzeko izatea. Bada, dirua ere atera daiteke, baina ez gaur egungo ustiapen maila horrekin. Nork eramaten du mendiari ateratzen zaion gainbalio hori? Beharrezkoa al da hori? Enpresa batek dirua irabazi behar du, sistema kapitalista batetan baikaude, orduan, noski, ezin zara enpresa baten etekinen kontra joan, hori baita bere izateko arrazoia... Baina exijitu beharko dugu gutxieneko etika bat mendiarekiko eta naturarekiko, ez? Baina, mendia suntsituta dago, sekulako pista ikaragarriak egin dira, nire

ustez zentzurik gabe ustiatzen da, edo oso ikuspuntu merkantilista batetik. Noski, horrekin lan egiten duenarentzat ezinbestekoa da. Hor dago arazoa, horren kontra borrokatzen baldin baduzu lanpostuen kontra ari zarela... eta hor, kontuz! Baina nire ustez hor dago arazo nagusia, mendiari ematen zaion tratuan".

Kaltetuak, gu; ez, lurra

"Uraren aferan gutxi egin dezakegu, arazo hori beste maila batetako baita, aldaketa klimatikoa, tokian tokitik gutxi egin dezakegu. Noski, geroz eta oihan gehiago badugu hobeki. Eta hobeto guretzako, eh! Planetaz hitz egiten dugulako, eta lurrari bost axola zaio! Lurra lasai asko etorri baitaiteke bere onera. Arazoa guk dugu, espezie gisa bizirauteko".





Ekueadorren

Petrolio putzua ustiatu, edo parke nazionala babestu?

Iosu Alfaro biologo etsaindarra izanen dugu aurtengo ikasturtean Esan Erraneko ingurumenaren tartean. Ingurumen hezkuntzan aritu da lanean batik bat Alfaro, eta lehendabiziko kolaborazioan adierazi du animalia, baso, landare, zuhaitz eta antzekoez hitz egingen digula, baina ez horretaz bakarrik. "Munduan gertatzen ari diren gauzak ekartzea ere bada asmoa", adierazi du. Bada, lehen kolaboraziora ekarri digun kasu baten inguruko artikulua duzue hauxe: abuztuan Ekuadorren egin zen erreferendum berezi bati buruzkoa.

"Ekuadorren hauteskundeak izan ziren udan, eta komunikabideetan asko hitz egin da horren inguruan. Hainbeste entzun ez den kontua da, dena dela, hauteskunde berean bi erreferendum ere egon zirela. Horietan, Ekuadorko herritarrek aukera zuten zera erabakitzeke: oihan baten azpiko petrolio putzua ustiatuko zuten, edo bere horretan utziko zuten". Azalpen txiki horren ondoren, galdera luzatu zuen irratian Alfarak: "Zer uste duzue erabaki zutela Ekuadorko herritarrek?". Eta, zuk, irakurle, zer uste duzu atera zela galdeketa hartatik?

Erabakia: Yasuniko Parke Nazionala babestea

Amazonia ekuadortarrean kokatutako Yasuni Parke Nazionalaren azpian dago kokatua aipatutako petrolio putzua. 1989tik, parkea Biosferaren Erreserba gisa dago izendatuta, munduan metro

karratuko biodibertsitate handiena dagoen aldeetako bat delako. Beren burua 'Yasunido' moduan izendatzen duten ingurumenaren aldeko taldeak 2013an sortu ziren, petrolio ustiapenaren aurka mugitzen hasteko.

Bada, herrialdeko hauteskundearen egunean, abuztuaren 20an, haien iritzia eta bozka emateko aukera zuten Ekuadorko herritarrek petrolio putzuaren ustiapenaren inguruan. Bertan, herritarren %58,9 petrolio ustiatzearen aurka eta parke nazionala babestearen alde agertu ziren. Aurrekaririk gabeko galdeketa bat izan zen Ekuadorko petrolio-proiektu bat aurrera eraman edo ez erabakitzeke aukera herriari ematen zaion lehen aldia izan baita. Parkea babestearen aldeko garaipena, mugimendu sozial eta indigenek urteetan egindako lanari esker izan dela nabarmendu dute Yasunidos taldeko kideek.

"Dirua ezin da jan"

Hauze izan zen erreferendumeko galdera zehatza: "Ados al zaude Ekuadorko gobernuak Bloque 43 izenarekin ezagutzen den ITTko (Ishpingo-Tambococha-Tiputini) petrolio gordina mugarik gabe lur azpian mantentzearekin?". Izan ere, aipatutako aldean lehenagotik egon da petrolio ustiapena. Bertan, 12 petrolio plataformek eta 225 putzuk eguneko 54.800 upel ekoizten dituzte. Komunitate internazionalak, petrolio-ustiapen proiektu berri honekin 3.600 milioi dolarretako konpentsazioa eskaintzen zion herrialdeari.

Proiektuak inguruari eta bertako bizilagunei eragingo lieken kalteak ordaintzea ezinezkoa dela defendatzen zuten egitasmoaren aurkako mugimenduetako kideek. "Naturarik ez dagoenean, ez dugu zer jan. Dirua ezin da jan, ezin da arnastu... Yasunik ematen diguna inoiz iristen ez den ustezko garapen horrek ematen diguna. Baina askoz ere handiagoa da", zioen Pedro Bermeo, Yasunidos taldeko kideak, erreferendumaren emaitzak jakindakoan. Ekuadorko bezalako kasuek erakusten digute, mundu ero hau hartzen ari den norabidearen aurrean, badela nonbait itzaropenerako tarterik.





Ikasturtearen hasierarekin, jubilatua ere martxan dira

Yoga eta Gimnasia hasi dute, eta talde bat baino gehiago osatu ahal izan dute. Ibilketa nordikoa egiteko aukera ere izanen da. Iraileko txangoa, Larrun mendira egin zuten.

Ale honetan, iraileko gertaerak kontatzera gatoz. Datorren ikasurterako antolatu nahi genituen hiru ekintzetara izena emateko garaia izan dugu. Yogarako eta Gimnasiarako hamartik gora izen emate izan direnez, taldeak osatuko dira eta urriaren lehen astean eman diote hasiera ikasurteari. Ibilketa nordikoa ekintzan jende gutxik eman du izena eta berriz saiatzea erabaki da, ea aste eguna aldatuz jende gehiago animatzen den, gutxienez hamar lagun eskatzen baitira taldea osatzeko.

Iraileko txangoa Larrun mendira trenez igotzea genuen eta horrelaxe egin genuen.

Goizeko hamarretarako han ginen, trenarako txartelak hartzeko aurretik egon behar baita. Zenbaitek beren "kafetxoa" hartzeko tarte ere izan zuten.

Trena hartu genuen, denok batera, eta 11:30etarako goian ginen. Eguraldi dotorea izan genuen, betiere galdurreari dagozkion haize boladekin.

Zein bista ederrak, eguraldia lagun, ikusi ahal izan genituen. Oso lagungarria den mapaz baliatu ginen inguruak kokatzeko. Hango eraikuntzak, antenak aparte, bentak dira eta, nola ez, bisitatu genituen. Oso prestatuak daude gu bezelako bisitarietarako harreta egiteko. Asteazken zehar gehienak adinduak eta eskola umeak izaten baitira hara joaten direnak.

Gailurrean egon behar diren ordu eta hogeit hamar minutuak pasatu ondoren, jaitsierako trena hartu



Autobusaren zain, bazkaltzera joateko, Getaria ▲



Hondartza ondotik paseoan, Zarautzen ▲



Hondartza ondotik paseoan, Zarautzen ▲



Hondartza ondotik paseoan, Zarautzen ▲

genuen, bideko larreaz mintzatzen. Iratzeak egiteko prest zeudela, baino trenean eserita!!

Behera iristean, autobusak hartzera joan ginen, gidariekin batera, gurekin igo baitziren.

Bazkaltzera Zugarramurdira jaon ginen, Azketa jatetxera, lehen egonak izanik, bagenekien beren egiteko moduz. Ederki bazkaldu ondoren, ohiko museko partidak

edo herria ikusteko beta izan genuen. Arratsaldeko sei t'erdia zirela abiatu ginen etxe aldera, egun polita eta berezia pasa ondoren, lagun arteko giroaz gozatuz.

Urriko txangoa Elizondora izanen da, ferietara. Datorren alean kontatuko dizuegu gertatutakoa. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



 **Denok Bat
Jubilatuena Elkartea**



Autobusaren zain, bazkaltzera joateko, Getaria ▲



Cederna Garalurren ekintzailertza zerbitzua ezagutzen

Cederna Garalur Elkarte, Nafarroako iparraldean dagoen garapenerako agentzia da. Elkartearen barruan, Mendialdea agentziak, hamabi herritan egiten du lan, hala nola, Arano, Goizueta, Leitza, Areso, Araitz, Larraun, Betelu, Lekunberri, Basaburua, Imotz, Atez eta Ultzaman.

Cederna Garalurren uste dugu Nafarroako Mendialdeak bizitza proiektuak aurrera eramateko aukera onak eta erakargarriak ematen dituela eta horretarako lankidetzak estuan ari gara tokiko udalekin, erakundeekin, enpresekin, etab. Gure helburua zerbitzu publikoen hobekuntza eta jarduera ekonomiko jasagarri, berritzaile eta baliabide endogenoak erabili eta errespetatzen dituztenak finkatzea da.

Ekintzailertza Cederna Garalurren ardatz estrategiko bat da, lurraldean jarduera ekonomikoak sustatzeko funtsezkoa baita. Enplegu iraunkorra, kalitatezkoa eta duina giltzarriak dira pertsonak eta familiak gure herrietan sustraitzeko, biztanleria berria erakartzeko eta, hartara, jendez husteko joera geldiarazteko. 2014. urtean Nafarroa Ekintzaile Sarean sartu ginen eta bertan ekintzailertzari laguntzeko hiru alderditan oinarritutako metodologia garatu dugu: kultura ekintzailea sustatzea, pertsona ekintzaileei eta enpresei laguntza

teknikoa ematea, eta prestakuntza fiskala.

Ekintzailertzari laguntzeko zerbitzuaren oinarriak: kultura ekintzailea, aholkularitza teknikoa eta prestakuntza fiskala.

Noiz da pertsona bat ekintzaile? Cederna Garalurren uste dugu jarduera ekonomiko bat burutan zein eskutan duen pertsona oro dela ekintzailea. Alde batetik, negozio ideia dutenei zuzendutako aholkularitza daukagu ideiarri forma eman eta negozioaren bideragarritasun planarekin laguntzeko. Informazio desberdinak ere ematen ditugu: diru-laguntzak, egun dauden forma juridiko desberdinak eta altan emateko egin beharreko tramiteak, behinik behin. Hontaz gain, orain dela bi urtetik hona, negozioen erreleboak eta negozio publikoak kudeatzeko eskaintzak argitaratzen ditugu www.navarraemprende.com atarian. 2022ko eta 2023ko uztaila bitartean negozio ideia duten 58 ekintzailei

eman diegu arreta Mendialdean eta 22 negozio berri jarri dira martxan.

Bestalde, martxan dauden negozioei ere zuzentzen gara (bai hasi berriak, zein urteak daramatzatenak) beharrian anitzak izaten baitituzte, hala nola, dibertsifikazioa, hobekuntzak, suspertzea, handitzea, ezagutzera ematea, etab. 2022ko eta 2023ko uztaila bitartean 43 negoziari eman diegu arreta.

Cederna Garalurreko Mendialdea agentziak lan talde zabala du Antsoainen eta beste zerbitzu batzuk eskaintzeko aukera ere ematen du, besteak beste, merkataritzarako aholkularitza teknikoa eta fiskalitateari buruzko formakuntza.

Beraz, ekintzailea bazara, jarduera ekonomiko baten ideiarekin edo negozio batekin martxan bazaude eta laguntza behar baduzu, jar zaitez Mendialdeako Cederna Garalurrekin kontaktuan:

Ainhoa Oribe (garapen agentea)

Telf: 617609328

Email: mendialdea@cederna.es


Arreta guneak (hitzordua aldeztu aurretik hartzea eskatzen da):

Lekunberri, Plazaolan. Astelehen eta astearteak.

Larrainzar, udaletxean: asteazkenak, bi asterik behin.

Leitza, Mimukai: ostegun eta ostiralak.

Goizueta, udaletxean: hileko lehen astelehenak.





Lanzko eta Beuntzako ostatuak, berriz zabalik

Urriaren 4an zabaldu zuen Lanzkoa. Bikote batek hartu du, bata gipuzkoarra eta bestea katalana. Katalunian jatetxea zuten eta gure inguruan probatu nahi dute orain.




Lanzkoakostatua ▲

Beuntzakoak, 11n ireki zituen berriz atea. Inauguraziorako egun osoko egitaraua prestatu zuten: bazkaria, pilota partidak, musika eta gaupasa. Gainera, urriaren 15ean, Mendialdeko aurtengo azken azoka ibiltarira ere Beuntzak hartu zuen, eta, horretarako ere prest, egon zen ostatua. Gogor hasi du! Zortea opa diogu eta luze iraun dezala zabalik!



Beuntzakoakostatua ▲



Carrefour
express

Zugandik gertuago

**¡Zure zain
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8
31867 Aroztegi - Atezko Ibarra
IZARPE KANPINA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

9'00 - 20'00

LARUNBATA ETA IGANDEA

9'00-14'00 / 16'00 -20'00



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



Basaburukoudalak Txokolateroren etxea eskuratuko du, hitzarmenez



Santos Etxegiari egindako elkarrizketa entzuteko

Basaburuko Udalak Jauntsarasko Txokolateroren etxea eskuratzeko hitzarmena lortu du. Santos Etxegiak Esan Erran irratian azaldu duenez: "Etxe enblematikoa izan da basaburuarrentzat, herritarrendako hainbat zerbitzu eskaini baitira bertan hamarkadetan zehar". Adineko jendeari zuzendutako gunea izanen da, haien beharretara egokituko dena. Jarduera zabala izan nahi du, hainbat zerbitzu eskainiz eta etorkizunean sortuko diren beharrei erantzuna eman ahal izateko: jubiloteka, eguneko zentroa, ...

Urriaren 1ean, Adineko Jendearen Nazioarteko Eguna aprobetxatuz, udalak deialdia egin zien herritarrei bertan biltzeko, eta jubilatuen elkartearekin batera ekimena egin zuen. Herritar ugari bildu zen.



Txokolateroren etxean egindako ekimena ▲

Basaburuko udalak, gainera, adineko pertsoneri zuzendutako kaleko gimnasioa ere jarri du hainbat herritan. Lau makinez osatuta dago: bizikleta estatikoa, gerriko biraketak egitekoa, noria eta oinola. Azaroan zirkuitu osasuntsu honetako makinak erabiltzeko tailerrak eskainiko dira eta 649 042 790 telefonoan eman behar da izena:

Igoa

Azaroak 6 (astelehena)

10:00-11:55

(Igoa, Arrarats eta Aizarozkoentzat).

Orokieta

Azaroak 6 (Astelehena)

12:05-14:00

(Orokieta-Erbiti eta Gartzarongoentzat)

Berute

Azaroak 7 (asteartea)

12:00-14:00

(Beruetekoentzak)

Itsaso

Azaroak 9 (Osteguna)

12:00- 14:00

(Itsaso eta Beramendikoentzat)



Kaleko gimnasioa ▲



AEK eta IKAn izena emateko aukera zabala eskualdean

IKAk Imotzen eta Basaburuko euskalduntzeaz arduratzen da eta AEK Ultzaman, Atetzen eta Anuen.

IKAren kasuan ikasturtean zehar ere interesa duen edonork klaseetara batzeko aukera izanen du. 948 610 776 telefonora deituz, leitza@ikaeuskaltegiak.eus helbidera mezu bat bidaliz edo eskualdeko euskara teknikariarekin harremanetan jarriz eman daiteke izena. Matrikularen zati handi bat berreskuratzeko aukera dute ikasleek, diru-laguntzei esker.

AEKren kasuan **Larraitzarren** eta Eritzegoitin emanen dituzte klaseak aurtengo ikasturtean.

Hasierako maila emanen dute Larraitzarren, astelehen eta ostegunetan 16:00etatik 18:30era, eta C1/EGA maila asteen bitan, goizez. Oraindik eguna eta ordua zehazteke dute.

Eritzegoitiren kasuan, berriz, B1 eta B2 mailak emanen dituzte. Asteen bitan izanen dira klaseak, arratsaldean, 18:00etatik 20:30era bitartean.

Azken urteetan bezala, mintzakide taldeak ere martxan jarriko dituzte aurtengoan. Euskaraz mintzatzeko gune informalak bultzatzeko.

Momentuz martxan diren taldeak horiek badira ere, euskaltegitik jakinarazi dutenez, talde gehiago sortzeko aukera ere badago, eta izena emateko atea oraindik zabalik dituztela nabarmendu dute. Informazio gehiagorako, 948 60 47 04 edo 636 973 923 telefonoak jarri dituzte.



IX. ARGAZKI LEHIAKETA

1. SARIA: 300€
2. SARIA: 200€
3. SARIA: 100€

BEDERATZIGARREN ARGAZKI LEHIAKETA

Ametza Elkartek BEDERATZIGARREN argazki lehiaketa eginen du aurten.

Hemen bizi den edozeinek hartu dezake parte eta originalak igortzeko epea **urriaren 20an** bukatzen da.

Aurten ere fotografia gaia zabala da, baina zerbait mugatu dugu.

Paisaia soilak ez dira onartuko. **Jendea, bertako lanak, kirolak...** denetatik, baina paisaiak soilik ez.

Ea animatzen zareten, gu sariak banatzeko prest gaude eta.

OHARRA: Informazio gehiago, amezti.eus agerkarian.



iritzia



Ion Orzaiz
Nafarroako Hitza

Minidisc gailu bat Jauntsaratsen 2023ko irailaren 29a

"Ez ahaztu *minidiska!*". Kazetari guztiok aditzen genuen ohartarazpen hori, bitan edo hirutan gutxienez, estudiotik atera aurretik. Minidisc gailua, Larraintzarko pestetan korte batzuk hartzeko, Aizarozko ostatuan bertso saio bat grabatzeko edo Autzan elkarrizketa bat egiteko. Dena, soinu oro, adierazpen oro, gertakizun oro, probetxugarri izan zitekeen hurrengo goizeko magazinean emateko. Eta kazetariak gertu egon behar zuen hura *minidiskean* jasotzeko.

Izan ere, garai hartan, Esan Erran irratiari lan egitea ez zen soilik esatari izatea: goizeko egunkariei erreparatzea zen; Iraizozko edo Lantzeko gasolindegietara deitzea istripu bat gertatu zelako edo errepidea moztuta zegoen jakiteko; teknikari lanetan laguntzea, elurragatik teilatuko antena mugitzen zen bakoitzean; edozein gairen inguruan tartarrean aritzea, Beleixe eta Aralar irratiarekin batera egiten genituen solasaldietan. Eta, bai, esatari izatea ere bazen: mikrofono aurrean jartzea eta entzuleei istorioak kontatzea, hurbiletik, goxo, belarrira. Horretan maistra eta maisu izan ziren hainbat lankide eta lagun, Esan Erran irratiari eman nuen denboran. Tania Arriaga, Txari Eleta, Iñigo Astiz, Jule Goñi, Maitane Burusko... Denek asmatu zuten baliabide oso urriekin kalitateko irrati egiten, eta, Jauntsarasko ganbara batean apailatutako estudio ñimiño horretatik, euskarazko eskaintza komunikatibo oso eta gertuko bat eskaintzen.

Berriki, estudioa bisitatzeko aukera izan dugu irratiari aritutako zenbaitek. Agerikoa da egungo lankideek ere garai bateko espiritu autogestionatuari eusten diotela. Eta, jada inork erabiltzen ez duen arren, minidisc gailua hor dago oraindik.

Esan Erran irratiak 25. urteurrena ospatzen ari da

Abenduan 25 urte beteko ditu eta aitzakia baliatu du pesta eta egitarau kulturala antolatzeko. Lehenengo bi ekimenak ospatu ditu dagoeneko: Jazztatu! Eta bertso saio musikatua. Urriaren 21ean, pesta eguna izanen da Eritzegoitiko kultur eskolan.

Irailaren 23an izan zen Jazztatu! Zarrantzen (Imotz) bizi diren Omenk kolektiboko kide batzuek DarDar proiektua eraman zuten Larraintzarrera, Aizarotzera eta Imozko eguna ospatzen ari zen Urritzara. Hainbat herritar bildu ziren jazz kontzertua ikusteko.

Urriaren 7an, gainera, bertso saio musikatu ederra izan zen Santurbeko baselizan, Gaskuen (Odieta). Han izan ziren Maialen Lujanbio Euskal Herriko txapelduna, Nerea Ibarzabal Euskal Herriko finalista, eta Julio Soto bertsolariak; eta, Ixak Arruti eta Gari Otamendi musikariek lagunduta. Saioaren gaiak Iñigo Ibarra Anotzibarko herritarra eta bertsolariak jarri zituen. Eguraldi oso eguzkitsua izan zen eta bertako eta kanpoko lagun franko bildu ziren.

Urteurrenaren ospakizun ekimenei amaiera emateko, urriaren 21ean egun osoko pesta izanen da Eritzegoitin: herri kirolak, muxikoak, bazkaria, bingo musikatua, La Jodederaren kontzertua eta DJ Hannibal Selecter izanen dira bertan. Bazkarian izena emateko, idatzi 689 033 000 telefonora. Menua: entsalada, Izarpe Kanpinak prestatutako paellak eta postrea. Prezioa: 22 euro helduendako; eta, 10, umeendako. Animatu eta babestu Esan Erran irratiaren proiektua!



Jazztatu! ▲

Urriaren 20an hasiko da Imozko eta Basaburuko pilota goxoko txapelketa

Imozko eta Basaburuko kirol batzordean antolatzen duen txapelketa, urriaren 20an hasiko da eta abenduaren 15ean amaitu, hiru mailetako finalekin.

Ohi bezala, 1., 2. eta 3. mailetan jokatuko da. Eta bikotek eman dute izena. Pasa den urtean 36 bikote aritu ziren.

Partidak ostiraletan eta larunbatetan jokatuko dira Gartzarongo frontoian eta Igoakoan. Baina euririk egiten badu edo paretak eta lurra bustitzen bada, Latasan ere jokatuko dira.

1995ean hasi ziren pilota goxoko txapelketa antolatzen, goxoarekin jokatzeak bertako eta inguruko pilotazaleak elkartzea eta pilotan aritzea errazten duelako. Ohiko inguruko betiko lagunekin bakarrik ez, bestelakoekin ere aritzea. Helburu hori betetzen jarraitzen du 28 urte ondoren.



Zorionak Zorionak !





Haurrendako bertso eskola martxan, lehenengoz eskualdean

Txikitatik bertsolaritzaren munduan murgiltzeko aukera zabala dago Euskal Herriko toki askotan, haurrendako bertso eskolen bidez. Gure eskualdean, eskolan bertsolaritza ikasgai gisa ematen dute duela urte mordo batetik, baina eskolatik kanpo, ez da inoiz lehenago haurrendako bertso eskolarik izan. Bada, herritar talde baten ekimenez, lehenbizikoz martxan jarriko da ikasturte honetan

“Azken Korrikaren bueltan sortu zitzaigun bertso eskola martxan jartzearen ideia. Anotzibaren helduendako bertso saioa egin zen orduan, eta umeendako zerbait egitea erabaki zen”. Tailer motz bat egin zuten orduan, eta hortik tiraka sortu zen haurrendako bertso eskolaren proiektua, Eritzegoitiko Goizargi Santxok gogoratzen duenez.

Lesakako eskolako ereduaz ezagutu zuten berak eta Iñigo Ibarra bertsolari odietarrak. “Han, bertsoa ardatz hartuta lantzen dute kurrikuluma, bi urtetatik 12 urteak arte. Pentsatu genuen, ‘hasi behar gara hemen ere!’, azaldu du Santxok. Hasiera batean, bertso eskolaren ohiko formatua ez, beste zerbait zuten buruan: Ibarrek bertsolaritza tailerra ematea eta Santxok dinamizatzea zen asmoa. Baina, azkenean ez zen atera tailerra, eta, beraz, ohiko bertso eskola ereduari ekitea erabaki zuten.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila arteko haurrendako

Behin ideia buruan, Ultzamako udalera jo zuten laguntza eske bultzatzaileek, eta segituan jaso zuten haien baiezkua. “Ekaitz Astiz zinegotziarekin jarri ginen harremanetan, eta proiektua babestuko zutela esan ziguten. Bestetik, euskara zerbitzutik ere laguntza eskaini ziguten. Ezinbestekoa izan da hori guretzat”, dio Santxok.

Irakaslea topatzeko zailtasunak izan zituzten hasieran, baina azkenean, Larraungo Aitor Irastortza lotu dute gidari lanetan aritzeko. “Hain zuzen, irakaslea ordaintzeko laguntza emanen du Ultzamako udalak”, zehaztu du. Bultzatzaileek nabarmentzen dutenez, bertso eskolen eredu nahiko egituratuta eta antolatuta dute honezkero Bertsozale

“**Goizargi Santxo:
Lehen ondar alea
da hau, eskualdean
bertsozaletasuna
kutsatzea da asmoa**”

Elkartetik, eta irakaslea ere haien bidez lortu dute. “Ordubeteko saioak izaten dira, eta adina ere haiek zehaztua dute; kasu honetan, Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailen arteko haurrei egonen da zuzenduta eskola.

“Hau da, nolabait, lehen ondar alea ereitea, poliki-poliki martxan jartzeko intentzioa. Esperantza da urtetik urtera kutsatzea eta bertsozaletzea”, adierazi du bultzatzaileek. Izan ere, jakitun dira bertsozaletasun handiegirik ez dagoela gaur egun eskualdean, eta beraz, saiakera berezia egin beharko dutela ekimena zabaltzeko.

Ikasturtean zehar ere, atek zabalik

Momentuz, eskualdeko bost haurrek eman dute izena bertso eskolan, baina ikasturtean zehar haur gehiago animatuz gero, arazorik gabe hartuko dituztela nabarmendu dute antolatzaileek.



Haurrak bertsotan ▲



“Bertsozale elkartetik proposatu ziguten Lehen Hekuntzakoekin soilik hastea. Beste zenbait eskoletan DBHko haurrek ere parte hartzen dute, baina hemen ez genuen horiek erakartzeko aukerarik ikusten”, diote. Lehen

saioa urriaren 9an egin zuten, eta proba moduan, hurbildu nahi zuten edozein haurrek aukera zuen proba moduko saio horretan parte hartzeko.

“ **Izaera kritikoa bultzatzen laguntzen du bertsolaritzak** ”

“Ikasleek orokorrean oso ongi pasatzen dute bertso eskolan”

Aitor Irastortza, eskualdeko bertso eskolako irakaslea

Aritu izan zara lehenagotik bertsolaritzako irakasle moduan, ezta? Non aritu zara, eta zer nolako esperientzia da?

Sei urtez aritu nintzen Nafarroako eskoletan zehar bertsolaritza ikastaroetan eta bertso eskoletako irakasle. Gehienbat, Sakanan barrena, Larraunen eta Leitzaldean ibili izan naiz. Esperientzia polita da, eta ikasleek orokorrean oso ongi pasatzen dute.

Bertsolaritzaren bidez, zein gaitasun lantzen dituzte? Bertsoan ongi egitea baino, agian bestelako helburuak ere izaten dituzte ikastaro hauek?

Azpimarratuko nuke izaera kritikoa bultzatzen laguntzen duela bertso munduak, askotan espero gabeko gai batean edo rolean jartzen zaituelako, eta horrek hausnartzera behartzen zaitu. Horretaz aparte, euskara aberasteko ere oso baliogarria da, eta ideiak ordenatzen ere ikasten da. Horiek azpimarratuko nituzke,

eta uste dut, bertsoan egiteaz aparte, horiek direla beste helburuetako batzuk: euskaraz gozatzea, eta taldean, errespetuz eta elkarlanean, momentu polit bat pasatzea.

Beste tokietan zer nolako erantzuna izan du ikastaroak haurren partetik? Gustura joaten al dira?

Orokorrean erantzun ona izatendute ikastaroek. Izan ere, doinu gustagarriak erakutsiz gero, oso erakargarria da, eta bestetik, gustuko edukia landuz ere ederki pasa

daiteke. Umorezko gaiak jarritz gero, adibidez, doinu polit batekin, edozeini gustatzeko modukoa da arlo hau. Eta, orokorrean, bai, gustura joaten dira gazteak, interesarekin eta inizatibarekin, eta ongi pasatzen dute. Batzuetan Kostatzen da lotsei aurre egitea, edo jende aurrean burura datorkizun hori adierazteko pausoa ematea, baina taldean konfiantza giroa sortzen denean ederki joan ohi da.

Bertsolaritzarako zaletasuna txikitatik lantzea garrantzitsua al da?

Baietz esanen nuke, bereziki doinutegiaren kasuan. Txikitatik lantzen hasiz gero asko nabaritzen da gero doinuak harrapatzeko gaitasun hori, ezagunak badituzte askoz errazagoa da gero esan nahi duten horretan kontzentratzea, doinuaz erdi ahaztuta. Eta, hartu-eman hori ere, bertsoan eduki ohi dena, umetatik barneratua izateak bidea asko errazten du. Animatzen den edozein gonbidatuta dago parte hartzera!



▲ Aitor Irastortza izanen da irakaslea



Anotzibarko bestak. Leitzetik etorri ziren zikiro erretzera



Anotzibarko bestetan kalejiran



Urriaren 1ean, Adinduen Nazioarteko Egunean, Txokolateroren etxea omertzeko ekitaldia egin zen, Jauntsaratsen



Anotzibarko bestetan suziariak



BRT Zirkua, Larraintzarren. Gaztetxoek errugbia jolasen bidez ezagutu zuten BRT Menditarrak taldearen eskutik



Ekhiñe, Urko, Andoni eta Hegoi egurra egiten



Iraizoko nexka-muttikoak elkar loturik



Eliza barnean, San Migeli agurra



Joxe Joakin Antsorena, Itsasoko gurutzearekin, San Migel gurtzerakoan eta agurtzerakoan".



Eltzaburuko herritarrak, pestetan

Bertsoak Udaben, 1831. urtean (I)

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko paperen artean agertu berri dira Etxeberriko Juana Maria Aldatzi paratutako bertsoak.

1831. urtean Udaben izandako juizio baten dokumentuak daude Nafarroako Errege Artxibo Nagusian gordeta, eta duela gutxi agertu dira. Paper horiek diotenez, aspaldi zebilen Udabeko gazte talde bat bazterrak nahasten, neskatoei errondan, bertsoan eta bestelako barrabaskeriatan.

Gauzak horrela, Udabeko errejidore nagusiak, Migel Aginagak, zortzi gazte udabear preso hartu

zituen: Borboreneko Martin Jose Auza; Errotako, Borboreneko eta Dorreko mutilak; Kasimiro Beramendi harginaren dizipulua, Juan Jose izenekoa; Jose Benito eta Martin Esteban Goñi anaiak eta Manuel Antonio Beramendi. Multa pagatuta, hurrengo egunerako libre ziren, 21 urteko Borboreneko Martin Jose izan ezik: hark ez zuela pagatuko, eta preso segitu behar! Gazteak zioen ez zuela kulparik; bestek asmatutako

bertsoak kantatzen baino ez zela ibili. Harginaren apendiz, Juan Jose, zeukan koplak zikin horien egiletzat.

Juiziorako deklarazioak hartuta, testigu frankok bertsoak ere kantatu zituzten. Dokumentazioan idatziz bildu ziren, eta gaztelerara itzuli, Iruñean, juizioan, ongi entenditzeko. Martin Jose presoaren arrebak, 24 urteko Borboreneko Maria Antonia Auzak, kantatu zuen bertsoarik osoena, eta hori da, gaur egungo eskribitzeko moldean, hona ekarri duguna.

Bertsoak Etxeberriko Juana Maria Aldatzen kontrakoak dira. Diotenez, Aldaz etxe onekoa zen; ez ziren maizterrak, eta amak, nonbait, dote eta arreo ederra zuen prest, alaba etxejabe on batekin ezkontzeko. Neskatoa kaskarina zen, ordea, eta, beste batzuen artean, apendiz nahiago zuen. Apendiz hori erditik kendu nahi bai, baina ezinean ibili ziren Etxeberrikoak. Azkenean, haurdun, Dorrekoari ere inguratu omen zitzaion Juana Maria.

Borboreneko Maria Antoniaren kontrako bertsoak ere ibili ziren herrian barna, baina horiek heldu den Pulunperako utziko ditugu.



Udabeko Etxeberria. Arg. R. Urritzola



**Ekaitz Santazilia eta
Ricardo Urritzola**



1

Bertsoaren paratzen nik behar dut hasi.
Aprendiza hori degu herrian nagusi.
Motiboak emanik, orain (di)tut ikasi.
Etxeberrian dauka andregai iraushi.

2

Bertsoaren paratzen nik behar dut hasi;
denbora asko ez dela zer degun ekusi.
Neska batek nahi luke herrian nagusi,
bainon orainik ez dauka gradurik aski.

3

Epaitondoa naizela zuk emen diozu.
Muturraren erditik gezurra diozu.
Agozabal haundi bat zara zu;
orain bertso berriak hargatik dituzu.

4

Orra bertso berriak, politak, halare:
Dama galai gazte bi Udaben badire.
Batzarrera joanik biak egon dire;
horien sekretoak orain agertu dire.

5

Etxetako alaba da, Jaungoikoak eginik.
Dama horrek bide dauka dotea bildurik;
amak idukiko du kutxatelan sarturik,
etxealde haundiren bat bai eta bilaturik.

6

Jaunak erabili dute a(ha)leginik aski:
aprendiza nahi zuten preso sarrerazi.
Mutil horrek izan du adiskide lazki;
libre ibiliko da horiengatik, naski.

7

Urriako hilean, bertsoaren paratzen.
Horien pasamoduek orain (di)tut aditzen.
Ondo esplikatzeko naute enkargatzen.
Dama gazte hori nor den ez dut ezagutzen.

1

Necesito principiari a poner versos.
En el pueblo el aprendiz tenemos el amo.
Por los motivos que tengo, ahora los he aprendido.
En la casa de Echeberría la tiene a la novia caliente.

2

Yo tengo que principiari a poner unos versos
de lo que he visto no hace mucho tiempo.
Una moza quisiera en el pueblo ser dueña,
pero aún no tiene bastante grado.

3

Como el ondón o raíz de un árbol que soy, vmd. dicen
ha dicho.
Por medio de los morros, miente vmd.
Una bocaraza (o embustera) es vmd.;
ahora tiene vmd. por eso nuevos versos.

4

Hai verso nuevo, bonito, por cierto.
Dos damas galanes jóvenes hay en Udabe.
Idas las dos en el bazarre han estado;
Ahora han parecido sus secretos.

5

Hija de casa vecinal es, porque Dios le ha hecho.
Esa dama tendrá el dote recogido.
Su madre lo tendrá dentro de la arca,
porque tiene proporcionada alguna casa grande.

6

Señores han tenido bastante quehacer:
al aprendiz quisieron que lo entrasen preso,
pero este mozo ha tenido muchos amigos,
y me parece que por ellos andará libre.

7

En el mes de septiembre, poniendo versos.
El modo de vivir de ellas ahora estoy oyendo.
Se explique bien me están encargando.
Esa dama joven quién es no la conozco.

8

Behin batez joan nitzen beren atarira:
 –“Bakarrik nago eta atoz, ea, goitira”.
 Honela errespuesta eman nion ere:
 --“Aurrerat joan behar dut; prisa dut nik ere”.

9

Jaunak, dama gazte horrek nora behar ote du?
 Etxealde on batean sartu beharko du.
 Aitak ere dotea prest idukiko du;
 arreoa emanik, amak bialiko du.

10

Ama bi alabarekin, aitaren zurratzen
 Udabeko Etxeberrian dirade aritzen.
 Inork zer esan ere, ez dira a(ha)lketzen
 emaginaren eske mandatua bialtzen.

11

Ziztor eta solomu, urdai-magrarekin
 berendatu emen dute biek elkarrekin.
 Horien sekretoak ez (di)tugu gaizki jakin;
 orain, fia zaitezte zenbait pertsonarekin.

12

Apezari egin diote oihurikan aski.
 Sobraxe biajez diote enfada(ra)zi.
 Aprestiza nahi zuten herritik atera(ra)zi;
 diru faltan, gelditu bide zaie, noski.

13

Aprestiza utzi ta Dorrekoa hartu duzu.
 Orain bertso berriak hargatik dituzu.
 Andregai eder hura urak edaten duzu;
 le(he)n baino le(he)n bisita eman beharko diozu.

14

Gazterik hasi zinen mutilen atzean.
 Guziek sartzen dire zure bihotzean!
 Bost aldiz esan diozu: “atoz arratsean,
 gustora pasako degu gaba goatzean”.

15

Hamabost bertso dire orain paperean.
 Esplikatu behar ditut, beta dudanean.
 Kausa franko badabil joan den aspaldian;
 dama gazte batentzat daude Etxeberrian.

8

Una vez marché a su puerta:
 –“Estoy sola y venga vmd. arriba”.
 Y yo la di por respuesta: – “Tengo que ir adelante, y
 también tengo prisa”.

9

Señores, esa dama joven ¿a dónde tendrá que ir?
 En alguna casa buena tendrá que entrar.
 Su padre también el dote tendrá dispuesto
 y la enviará su madre con el arreo o ropa de cama.

10

Madre con dos hijas dando una zurra al padre,
 en la casa de Echeberría de Udabe suelen ocuparsen.
 Aún por lo que hablan las gentes, no se avergüenzan
 a embiar por la ama con el recado que biniese.

11

Longaniza, lomo y magras
 dicen han merendado los dos juntos.
 No hemos sabido mal sus secretos;
 y ahora fiaros con algunas personas.

12

Al cura le han hecho bastantes gritos
 y por demaseados veajes le han hecho enfadar.
 Al aprendiz querían se le hiciese salir del pueblo
 y, al parecer, por falta de dinero, se les ha quedado.

13


Dejando al aprendiz, ha tomado al de la casa de Do-
 rrea.
 Ahora los bersos nuevos por eso tiene vmd.
 Hermosa novia está vmd. tomando aguas,
 pero antes con antes tendrá vmd. q[ue] visitarlo.

14

Joven principió vmd. detrás de los mozos.
 ¡Todos entran en el corazón de vmd.!
 Más de cinco veces ha dicho vmd.; “venga vmd por la
 noche, a gusto pasaremos la noche en la cama”.

15

Quince versos ahora son en el papel,
 y los tengo de explicar, cuando tenga tiempo.
 Bastantes causas hay hace mucho tiempo,
 para una dama joven que está en la casa de Echebe-rría.



Ez da zaila, jarrera ona behar

Gaur, Don Emilio Lintzoain Lintzoain dakargu, Eugiko semea; Eugiko **Aragonen** bordan egin zituen lehen urteak, baina laster joan zen familia guzia Iragiko **Atekoa** erosi eta aldatu zen.

Apez ordenatu eta 1951. urtean Muskitzen hartu zuen parroko kargua. Laster Mezkiritza bertako parrokoaren ordezkotza egiteko urte batez edo biez eta, berriz ere, Muskitza etorri, eta hor izan zen parroko ia-ia hil artio (Lehenik Muskizko parrokoa eraman zuen, gero Muskizkoarekin batera Zarranzkoa (1963) eta azkenik Oskozkoa ere hartu behar izan zuen)

Gure Don Emilio, zentzuzko gizona, euskaldun peto-peto! Gizon jantzia eta batez ere arte maitalea, Nafarroako elizen arkitektura eta pinturak batez ere.

Catálogo Monumental de Navarra bilduman parte hartu zuen. Hori egiten aritu ziren gizon-emakume jakintsuei laguntzen, urte andana batez. Makina bat herri ibili zituen Nafarroan!

Hala ere, gauza horiek ez dira toki honetako gaiak. Beste zerbaitez ariko gara; beti bezala, gure hizkuntzaren inguruan.

2018ko egun batean, hil aurretioan grabatu nion, ustekabe bezala, euskarari buruz zer pentsatzen zuen eta hitzez hitz hona zer aipatu zidan, bere Eugi-Iragiko euskarari:

-Nola joaten diren kanpoko hizkuntzak ikastera! Eta hemengoak despreziatzen dute!

-Despreziatzen dute. Neri harritzen dire. Harritzen dire neri. Nik maten eskerrak nere aite ta ama, nere aitaxi ta izeba ta denei; osabei

ere bai, euskeraz egin diretelako. Badakizu zer aberastasuna den! Nik baño hobeki dakizu. Euskaraz jakitea!!!

*Ni pozik nago. Neri iduritzen zaide gauzik **zuzenena** hori dela. Badakizu, mile urte izain dire gure lehenagoek in zutela igual. Bi mila urte igual, gehiago igual in zutela euskera. Ez oraingo euskera bezalakoa. Hizkuntzek ere aldatuz eta aldatuz joaten dire...*

Aita Barandiarenek (Victor Manukel) Arbeloari... Arbeloa joan'mentzen behin Ataune ta hasi'mentzen galdetzen (antzinakotasunaz)

Eta erantzun'men'tzuen:

-Ni ez naiz ausartzen horri erantzutea. Mendeetan barna hizkuntzak izan dituen aldaketak ikusiz... ez naiz ausartzen! Etimologiak eta...

Ta zenbaitzuk etimologiak botatzen'tuzte nolana; baño hori da ez dakitelako, ja, ja, ja!

Eta Don Emiliok hor aipatzen du ZUZENENA dela euskaraz jakitea. Nori inporta zaio zuzenena, zuzena eta okerra nahas-mahas, gauza bera balira bezala ibiltzen den garai honetan? Inporta behar liguke. Inporta behar liguke eta gure seme-alabengan txertatu beharko genuke maitasun hori.

D. Emilio, gizon umila, xaloa, baina ustekabe bere nortasun gogorra eta ironia zorrotza ateratzen zekiena. Nolako ezustekoak ez ote zituen eman Don Emiliok!

Esker onez, Don Emilio, hau zuretako da, hor Zeruan gogoan izanen gaituzulakoan! Badugu zerbaiten premiariak! Bai horixe!



▲ Emilio Lintzoain



Florentzio Ariztegi Narbaetz, beti artzain, hori zuen gogoko

Florentzio Alkozko semea dugu, oihan-mutila gaztetan eta gero Dononeko langilea izana dugu. Hala ere ttiki-ttikitatik artzain, lehenik **artxaiko** eta ondoren artzain, beti. Eta orain ere, 79 urtetan, inoiz baino gogotsuago dabilela esanen nuke.

Alkozko **Oianeko Itxa**-ra joan gara berarekin egotera. Sagrario, bere arreba zaharrena topatu dugu bertan, hainbeste urtez Alkozko ostalaria izandakoa, jubilatuta artio. Oraindik ardietan da Florentzio eta esperatu behar izan diogu.

Etorri bezain laster, hasi gara bere bizitzako joan-etorri guziez hizketan, ni hiketan eta bera zuketan. Zaila da gero hiketan ariaraztea! Eta hona, idatzira, fonetikoki pasatuko dugu, izugarri atsegina baitzait ultzamarren hizkera. Lastima, hiketaz ezinezkoa izan da.

Aipatu gabe ezin utzi, **Oianeko itxa** honen aurrekoa oihanean zela, herritik aparte, nahiz franko hurbil izan. 1985ean egin zuten oraingoa, herrian, eta oihanekoa utzi ardi bordatako.

Hi noiz hasi yitzen herrire tortzen?

Taberna beenik berandu, ja, ja!

Eta eskolara bortz urtetan? Mojetan ibilli yitzen?

Bortz urte izain nittuen bai! Seguro! Bai, bai, mojetan zazpi urtiak artio. Sor Mercedes Arratibelekin, Mandragongoa, maistra.

Maistra ona yun? Ez zin yotzen?

Ona, ona, gozo-gozoa. Ez, ez, ez, neri yotzen ziena zen eskolan, gerogo, gerogo.

Eskolak erderaz yittun. Eta euskeraz batere aitzen yun haurrekin?

Bai, bai, aitzen zien euskeraz. Gaña guk erdaraz ez giñakin kozkorrik'ere garai hartan.

Noiz hasi yitzen mezara tortzen?

Primera Comunion itteko, sei-zazpi urtetan.

Biño altziñetik doktriñe ikesiko ziñuten

Bai, bai, ikesi giñuen ikesi. Plantan gañera.

Nokin ikesi ziñuten. Euskeraz eo erdaraz?

Asiloan, mojekin. Erdaraz, erdaraz. Herriko apeza zen Don Pedrokin'e erdaraz.

Nolakoa yun Don Pedro Oiartzun apeza?

Ona, ona, gozoa-gozoa.

Ez zien yotzen?

Ez, ez, horren altziñagokoak yotzen zin, Don Justok.

Eta dotriñe ikesten ziñuten ongi?

Ongi, ongi. Ikesi bearko!

Nor yun maistrue?

Maistrue? Don Luis Armendaritz, lenbixko urtetan. Bi urte edo, horrekin. Orduen lekutu yun. Ta karri ziten maistra bat arront gaixtoa! Harrek bai, yotzen ziren,

harrek! Ze belarrondokoak maten zittiren!

Don Luisek nola deitzen zin?

Artxaiko, ez zuen beste izenik neretako, Artxaiko.

Noiz artio ibilli yitzen eskolan?

Hamiru urtiak artio. San Martiñetan hasi ta martxoan lenbizikorako fuera!

Ez yitzen gustora tortzen noski!

Beti negarrez eskolara tortzeko!

Biño ikesi yun poliki.

Bai, azkar!!! Ez, ez, ez nun ikesi, jare e'nun ikesi!



▲ Florentzio



Galdetu biar nin noiz hasi yitzen lanian, biño hi, hasi-hasi, bortz urtetan hasi yitzen.

Horixe! Bai, bai. Abueloikin iaio orduko. Harrek bai, nai ziren!

Hik iñen yion dena, harrek erran guzie!

A, seguru! Hore bera e'tzenian xauli-xaulie: *-goaie hara, in'tzak hore, ta ni iaana, flako eta in, manatzen zuen guzie!*

Eskola denboran zertan aitzen yitzen lanian

Aziendakin. Yorran'e bai, uda bidian! Eta bedratzi urtetan pasatu ziren eguzkiek burue, abuztuaren 9an eraman zireten Ospitalera. Aitek

atxakulo hartu ta ekarri ziren hona (herrira) Oso-oso gaizki, hiltzeko zorien egon nitzen, eta autoan sartu ta aitak: -ez diagu kusco geiago!

Menigitis harpatu eta zortzi egunez Ospitalian. Eta saltoka itxera! Aite kontent, uff!

Itxan nekezari. Zer itten ziñuten?

Garie, maize, oloa... belarra. Denetatik.

Zeazienda ziñuten ba garai hartan?

4-5 bei, haragitakoak, eta 60 ardi. Ta gero, olloak, txerrie ta konejuek.

Mutiletan zarrena, hi itxerako geldittuko yitzen? Zenbat urtiak artio geldittu yitzen itxan?

Je, je! Hemeretzi urtiak artio. Hemeretzi urtetan yoan nitzen Iratire. Lengusuendako, Eugenio zenandako (Eugenio Etsain Narbaetz) eta hau Renfendako aitzen zen.

Zenbat mutil aitzen ziñeten?

Ordun, asko! Ba zittuen hogeita hamar biño geigo. Ordun izandu zittuen bi lekutan bi ekipo.

Bi urtez aritu zen Iratin Florentzio, soldadu joan artio.

Ta tokatu zaiken soldadu yoatia.

Bai, bai, eta Zaragozara kanpamenture, hiru hillabete. Eta handik Barbastrora. Eta han hameka t'erdi edo, holatsu.

Ta permisoak? Noiz tortzen yitzen?

Torri? Bai, permiso bat denbora guzien! Hillabete bat. Biño aunditz lizentziatu ziren nerekin batio yoan ta itxa agertu gabe. Nik izandu nun suerte alu bet. Atletismoan edo apuntetu zireten han ta atra giñen ongi ta hillabete baterako itxa.

Hi, Florentzio, solduskoa akatu ta lania yoan yitzen. Noa yoan yitzen lania?

Iñora ez. Beontan geldittu. Benito Baldarentzat, alkozarrarendako.

Eta hemen ibili zen bi urtez, Baldarentzat, herri batetik bestera, oihanean, zur ateratzen beti. Larunbatetan etxera etorritz, baina gainerakoan txabolan lo eginez.

Oianian nola yaten ziñuten? Babaz gain, beste zerbait ematen zitzen?

Bai, izaten zen razione pixko'at, urdaie, zenbait aldiz haragi pixko'at, patata fritak aunditz... arroltze batzuk izaten baziren... merendatzeko gazta...

Eta ardoa? Neurtue?

Ez, ez, Iratin bai, litro bat ardo. Eta hortik gora, pagatute. Hemen ez, biar adine ardo, libre!



▲ Florentzio bere zakur ernea den Bixkorrekin



Alkozko Artxaikoa

DANONE FABRIKAN LANEAN

Frantzie utzi eta itzuli yitzen. Dononen lanian aitzia?

Ez, ez, oiania! Joxe Barberena beutarrarendako aittu nitzen lau urtez.

Oiana utzi eta Danonen hasi yitzen lanian

Bai, aite hiltzian, itxera torri nintzen. Eta hemen, itxetik fabrikera.

Bestela seittuko yun oianian.

Bai, gotik gañera! Fabriken egoten al nitzen sartuik lenbixiko eunetik. Torri zenian honara Danone, egon ziren hemen, ia nai nuen fabriken hasi. E'nuen nai izandu.

Irabazi ttiagoak fabriken.

Bai, ordun 4.000 pztako soldata. Eta oianian irabazten nittun 500 pza euneko. Nola yoan bear nuen fabrikera!!!! Sasoi earra lanerako, gozaten hartan. Eta segi, eta segi Barberenarekin. Orduen bai, irabazten nuen dirue! Zer pena eman ziren!!!

Aite hiltzian, azienda pizar bat baigiñuen itxan ta joditzen ziden uztia... ta hortaz!

Aziendan lana itxan eta fabrikera

Bai, gaur apuntetu eta biramonian yoateko!

Eta urte aunitzen ondoan, egun batian, batetik bestia, fabrike hertxi biar zutela.

Bai, abixue hertxi biar zutela, biño e'tzuten erran noiz. Urte baten burun hertxi zuten.

Eta ze pentsatu yun? E'yun niar in?

E'nuen deus pentsatu. Eta negar? Ez, ez. Beldurrik ere ez.

Florentzio, gero Frantzire yoan yitzen. Nora yoan yitzen, Pirineota? Alpeta?

Bi urtez Bajos Pirineosen eta hurrengo bi urteak Altos Pirineosen.

Ta norendako aittu yitzen lanian?

San Godensko fabrikendako. Ta Bastier-endako ere bai. Hau San Godensko fabrikendako aitzen zen eta beretako ere bai. Honek serreria zuen Tarbesen.

Eta gero, Pirineotatik nora yoan yitzen?

Alpeseta. Bi urtez, Mariezkurrenarendako.

Karro bat diru kartzen ziñuten urtero.

Bai, lekue sartzeko!

Bai, nai dukena erran zak, biño hemengoakin konparatuz diru aunditz irabazten ziñuten!

Ordun hasi zen ebazten. Ta han gaña itten zen diferente. Hara yoan ta ziñauden txabolian kanpaña guzie! Eta e'ziñun gastatzen jare'e. Ebazi guzie itxa!

Gure protagonista motosierrista bikaina izan zen, indarra alde batetik eta bestetik enantzua. Alpeetan urte batez Oskozko Gartzarondarrekin aritu zen lanean, lau anaiekin.

Berriz ere artzain.

Fabrika hertsi eta etxera gure Artxaiko. Bertzalde, Kandido anaiak ere lana galdu zuen, Uhartan Patricio Echeverria fabrikak ere huts egin baitzuen.

Eta bi anaiak etxean, berriz ere lehengo lanera.

Artaldia handitu biarko ziñuten?

Bai, bi anaiek hemen artaldia haunditu eta ardiekin. Borda berrie in eta hola. Lantzen ere badugu itxaldia. Eta esne geigo saltzen hasi ginen. Eta Udabeko Dorreari saldu izan diogu beti.




Txurdan

- **Hiztegia**
- **Artxaiko:** artzain gaztetxo, ardien zaintzeko ibiltzen zena.
- **Xauli-xaulie:** Zaulia, biguina (Hemen dio zauli-zaulia)
- **Atxakulo:** lepo gainean
- **Beontan.** Bere honetan
- **Gotik:** gogotik
- **Pizar:** pitta bat, zertxobait.
- **Ebazi:** Irabazi
- **Enantzua:** lanean eta, abildadea gauzak azkar, agudo egiteko (eta ongi)



▲ Oilo biltzen bestetan. Ezkerrekoa dugu Florentzio eta eskuinekoa, berriz, Martin Goñi, Victorianaren etxekoa.



Gure alderdian ere gertatu ziren gertaera latzak!

► Artikulua osorik, amezti.eus-en

Zer gertatu zen Irunberriko Zintzurrean? 1990eko ekainaren 25eko eguerdian hiru etakide eta guardia zibilaren arteko tiroketa batean zibil bat hila gertatu zela eta komandoko hirurak ihesi egin zutela. Hori zen komunikabide guziak ziotena, hori zen gertaera larria. Eta hiru ETAKoen bila zebilen Nafarroako guardia zibila arratsalde luzean, iluntzean German Rubenach, iruindarra, buruan tiro bat zuela, hil-hurren aurkitu zuenean.

Biharamunean zabaldu zuten bigarren berri latza, komandoko beste biak opatu zituztela eta elkarrri tiro egin-eta hil zirela, suizidatu, alegia, tiroketa izan zen lekutik oso-oso hurbil, metro batzuetara besterik ez.

Horrelakorik ez zen inoiz gertatu, beren buruari tiro egitea entzutea bakarrik astindu latza izan zen denentzat eta gehiago abertzaleentzat. Eta zer esan gure alderdian, Larraunen, eratu zen komando-laguntzaileko partaide zirenentzat?

Berehala ihesi egin zuten Beramendiko zuloa hustu ondoren.

Eta Larraungo gazte horien ihesak are gehiago aztoratu gintuen, jakinik nolako inarrosaldia suposatzen zuten horrelako erorketa batek.

Barne Ministerioaren komunikatuen eta Gorteetan Ministroaren bi agerraldiek suizidioa sinestarazi nahi izan ziguten. Gainerako aukera guziak hertsu nahi zituzten, berena zen egia bakarra. Baina kontakizunak zulo asko zuen, ilun ziren puntu gehiegi, galdera aunitz erantzunik ez zutenak...

Eta Rubenach Iruñeko Ospitaleko CIUn egonik, hiltzeko arrisku bizian, Poliziak eta Epaileak bi aldiz galdekatuz. Izugarria!

Gerora, Espainiako polizien laguntzaz, Espainiako Justiziaren esku hartze interesatuaz, alderdi politikoen alderdikeriez..., ahal bezala, lurra bota, estali eta atzendu. Eskandalua handia izan zen hasieran, ondoren, tapatu zuten ahal guzia, baina hura ezagutu genuenon bihotzean zauri bat gelditu zen.

Orain Pako Aristi Urrestillako literatur idazle bikainak eta egunkarietako polemista handiak, **Irunberri, 1990: Arroilaren negarra** liburua atondu digu. Horretarako lekuak, lekukoak, komando laguntzaileetako kideak... den-denekin hitz eginez, uste dut Arroilako misterioa urratzen saiatu dela. Eta erdietsi duela.


Liburu argigarria, zorrotza eta zintzoa; "Euskaldunon hitza" esaten zen bezala oraindik ere, batzuetan bederen, egia dela erakutsi digu Aristik. Ez nuen besterik espero.

Liburu gomendagarria, irakurtzeko erraza, batzuetan nobelagile batek eskain dezaken goi literatura eskaintzen digu, besteetan misterio kutsuko orrialdeak eta askotan polemika zale baten ikerketa zorrotza, galderez eta ahal duenean erantzun argitsuez betea.

Bai, kontakizun mingarria, baina gure historia hurbila ezagutzeko liburua. Merezki du merezi duenez.



Juan Aleman



Pako Aristi. Iturria, Uztarrria.eus

*P.D. Orain 2-3 urte Jon Alonso Fourcadek, Iruñeko idazle nasaiak, atera zuen beste liburu eder bat euskal gatazkaz: **Naparra, kasu irekia**. XX. bukaerako euskal borrokaz ikasi nahi duenak hor beste liburu ezinbestekoa. Harrigarriki azaltzen ditu orduko borrokalari handi eta txikien buru barrenak, nahiak, kezak eta ezinegonak. Barne-barnerainoko bidaiak egiten maisu agertu zaigu Alonso.*

*Jose Miguel Etxeberria, Komando Autonomoetako kidearen desagerpenaz dihardu liburuak. **Naparra, kasu irekia**.*

Euskal puzzlea osatzeko bi liburuak irakurtzeak on eginen liguke, osagarriak dira eta bikainak, bai horixe!

Gartzaron, lau hilabetez pilotaren herriburua

Gartzarongo pilota txapelketaren 38. edizioa ari dira aurtengoan. Urteak pasatuta ere, pilotarien artean maitea izaten jarraitzen du Basaburuko txapelketa horrek. Toki Alai elkarteak antolatzen du urtero, Imozko eta Basaburuko Kirol Batzordearekin batera. 221 bikotek eman dute izena aurtengoan. Zer esan nahi duen horrek? Bada, Euskal Herriko eta hortik kanpoko 442 lagun pasatu direla hilabeteotan Gartzarongo frontoi xumetik. Ez da makala!

Mikel Jaunarena 'Zepelo' hasieratik aritu da Gartzarongo Pilota Txapelketaren antolakuntzan. "Lehen urteetan antolaketan parte hartu nuen, eta bosgarren urtetik aurrera, txapelketaren arduraduna naiz, nolabait", azaldu du. Hamarkada hauetan guztietan zer aldatu den galdetuta, pilotan jokatzeko moduz hitz egin digu: garai batean botera askoz gehiago jokatzeko zen, eta gaur, berriz, airez askoz gehiago sartzen dira jokalaria. "Orain azkarragoa izaten da; lehen, partidak akaso gogorragoak ziren, baina pilotak motelagoak izaten ziren", dio.

Nafarroan jokatzeko den pilota txapelketarik jendetsuenetakoa da Gartzarongoa, jendetsuena ez bada. Nafarroatik, Gipuzkoatik, Arabatik, Bizkaitik eta Errioxatik datoz aurtengo jokalaria. Markina, Sopela, Amorebieta, Tolosa, Oiartzun, Hernani, Billabona...herrien zerrenda luzea da. Baina, zer dela eta arrakasta hori? "Udan jokatzeko den txapelketa ireki bakarra da gurea, ez dago horrelako besterik. Besteren bat badago Atarrabian, baina askoz ere laburragoa da". Izan ere, uda osoan luzatzen da Gartzarongoa: uztailaren 1ean hasi zen aurtengo edizioa, eta urriaren 28an bukatuko da.

Sei maila desberdin

Sei kategoria desberdintzen dituzte txapelketan: umeak, haurrak, gaztetxoak, gazteak, helduak eta emakumezkoak. Aurtengo edizioan, umeen mailan 36 bikotek eman zuten izena; hurrenean 52 bikotek; gaztetxoenean 39 bikotek; gazteenean 40 bikotek; helduenean 50 bikotek; eta, bukatzeko, emakumezkoenean 4 bikotek. "Emakumezkoen kasuan, ligaxka moduko bat antolatzen dugu, urriaren 7an hasiko dira beraiek".

Partidak larunbat eta igande goizetan jokatzeko dituzte Gartzarongo frontoian. Dena dela, inguruko herrietako festak direnean, txapelketa horietara zabaltzen ere saiatzen dira. Aurtengoan, esaterako, Latasako eta Igoako festetara eraman dute txapelketa, eta Aizarotzen ere jokatu dira partidak.

Finalak, urriaren 28an

Uztailaren 1ean hasi zen aurtengo txapelketa, eta handik hona, astebururo-astebururo izan dira partidak. Jaunarenak dioenez, lehia estua egon da horietako askotan, 18-17ko eta 22-21eko emaitza dezente egon baitira. Urriaren 7ko asteburuan final laurdenak jokatu dira, 21eko asteburuan finalaurrekoak, eta bukatzeko, urriaren 28an jokatu dira finalak.



Txapelketa ▲

Begiratu noiz dāgokizun

UMETOKI-LEPOKO MINBIZIA
GARAIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA



BEATRIZ
53 URTE



IZASKUN
64 URTE



CHAIMAE
38 URTE



OLIVIA
40 URTE

35, 40, 45, 50, 55, 60 edo 65 urte badituzu, begiratzeko unea da.
Umetoki-lepoko minbiziari aurrea har dakioko. Begiratu. Zaindu.





Zer izan da webgunean?

Ikasturte berriarekin, webguneak albiste iturri izaten jarraitu nahi du. Albisteak argitaratzearekin batera, irratia denboraldi berriarekin, bertako edukia ere zintzilikatzen hasi da amezti.eus-ek.

Izan ere, dakizue, hiru komunikabide bultzatzen ditu eskualdean Ametza Kultur Elkartek. Pulunpe, Esan Erran irratia eta amezti.eus agerkari digitala. Azken horretan aurkituko dituzuen edukien laburpena egin dizuegu hemen.



Jazztatu!

Aipatu dizuegu, ale honetan ere, Esan Erran irratia 25 urte beteko dituela abenduan, eta hasi dira ospatzeko ekimenak. Jazztatu izan zen lehena, Omen kolektiboaren jazz proiektua, DarDar, Larraintzarrera, Aizarotzera eta Urritzara eraman zuten, kamioneta baten gainean. Aritz

Gorostiaga Eskubik, *Bi ahizpak bideo* -ren sortzaileak, irratia dokumentalerako irudiak biltzen ari da, eta egun horretakoak ere bideo batetan bildu zituen. Ameztin aurkituko duzue:

Esan Erranen 25. urteurrena aipatuta, gainera, nabarmentzekoa da atal berri bat aurkituko duzuela webgunean, urteurrenarekin lotura duen albiste eta eduki oro biltzen dituen.

Jazztatu!
ekimenaren bideoa



Esan Erranek
25 urte lehiora
sarbidea





Pulunpeko argazki lehiaketa

Berehalako informazio garrantzitsua paratzeko aukera ematen du Webguneak. Eta, badator Pulunpeko IX. argazki lehiaketa. Parte hartu nahi duenak oinarriak ongi ezagutzea komeni du. Eta, guzti-guztiak aurkituko ditu honako esteka honetan:

Argazki lehiaketako oinarriak



Albiste gehiago

Albisteen artean, potoloenetarikoak izan da Txokolateroren etxea eskuratzeko hitzarmenarena. Horregatik, toki zabala hartu du gure webgunean. Motzean iragarri ondoren, elkarrizketa egin genion Santos Etxegiari, Esan Erraneko Egun Ero magazinean. Osorik entzuteko aukera duzue:

Txokolateroren etxea eskuratzeari buruzko elkarrizketa alkateari



Irratsaioak, osorik

Egun Ero irratsaioa aipatu dugu. Eta, jakin ezazue, elkarrizketak eta kolaborazioak banatuta igotzeaz gain, irratsaioa osorik ere ameztin zintzilikatzen dela. Horrela, zuzenekoan edo errepikapenetan entzuteko aukerarik ez baduzue, noiznahi entzun dezakezue podkasta.

Egun Ero irratsaioaren podkastak



Agenda

Nabarmentzekoa da webguneak duen beste atal oso praktikoa: agenda. Bertan aurkitu daitezke eskualdeko herrietan izanen diren ekimenak. Den-denak, batean.



Agenda

Pulunpeko PDF guztiak

Gogoratu, gainera, Pulunpeko PDF guztiak ere amezti.eus-en daudela irakurgai, baita deskargatzeko aukerarekin ere. Modu horretan, barruan zer etorriko zaizuen ikusi dezakezue, etxera iritsi baino lehen.



233. zenbakia
Iraila 2023

pulunpe



Anue, Atez, Basaburua, Imotz, Lantz, Odietareta Uitzamaiko aldirikaria



Itzuli gara!

Duo Dinamico bikoteak esaten zuen bezala “El final del verano llegó”. Baina horrekin batera, alaitasuna galdu ez dezagun, berriro hartuko dugu martxa liburutegian: Ostiral Kulturalak, irakurle klubak eta liburutegiaren ohiko ordutegia itzuli dira.

Urriarako Ostiral Kulturalen programazioa aurkeztu baino lehen hainbat ohar egin nahi dugu. Lehenengo eta behin, liburutegiaren ordutegia gogoratu:

Astelehenetik ostiralera 16:30tik 19:30ra

Irakurtzeko beste modu bat

Liburutegian bi irakurle klub kudeatzen ditugu, euskaraz bata, bestea gaztelaniaz. “Baina zer da irakurle klub bat?”, entzuten da hondotik ahots bat. “Idazle, filologo, literaturan aditua izan behar da?”. Ez, jaun-andreok! Horrela funtzionatzen dute klubek: aldez aurretik parte-hartzaileen

artean banatu den liburu edo komiki bat komentatzen dute taldekideek, koordinatzaileak sarrera bat egin eta iritziak elkar trukatzeko dituzte, modu erlaxatu batean, bakoitzak nahi edo ahal duen moduan. Liburu-sortak Nafarroako liburutegi-sareak ematen ditu, eta ez da beharrezkoa horiek erostea. Urritik ekainera bitartean, hilean behin, izaten dira bilerak. Anima zaitez! Irakurtzeko beste modu bat da, besteengandik ikuspuntuak hartuz eta ikasiz.

Ez joan oraindik, gehiago dago!

Goazen, orain, Ostiral Kulturalekin! Dakizuenez, ostialero ekimen kulturalen bat antolatzen da (kontzertuak, dokumentalak, hitzaldiak). “Eta nork antolatzen

du?”, berriro hondotik ahotsa. Bada, gogoratu nahi dugu, 17:00etan liburutegian eta hilabeteko lehenengo asteartean, Dinamizazio Batzordea biltzen dela eta parte-hartzea zabalik dagoela, ideiak edo proposamenak egiteko.

Ikasturte honetan indarrez hasi gara, oso kontzertu-dokumental interesgarri eta entretengarri batekin: *En furgo al Himalaya*, Pato Mikeleizen eskutik; gero txikienek euskaraz gozatzeko eta euskararekin jolasteko aukera izan zuten, Joana Zigandak, Josu Sanjurjok eta Aitor Irastortzak bertsolariak eskaini zuten bertso-saioari esker (bide batez, sortu den umeendako bertso-eskola aurkezteko balio izan zuen *Bertso Jasak*); torturari buruzko dokumental bat ere izan genuen, *Karpeta urdinak*, bere





zuzendariak berak komentatua; eta, pasa den urriaren 6an, emakumeek egindako poesia hispanoamerikarraren ahots garrantzitsuenak (Gloria Fuertes, Dulce Chacón, Gioconda Belli...) biltzen dituen poesia feministako ikuskizunaz gozatu genuen: Ardi beltzak.

Diego Vasallo oholztan

“Zer ikusiko dugu urrian falta diren ostiraletan?”, galdetzen dugu guk geuk, hondotik ahots horrek galdera egin baino lehen? Urriaren 20an, 19:00etan Larraintzarko Gizarte Etxean ANDIAKO LANDE-EREMUKO EMAKUMEAK dokumentala proiektatuko da. Honetan, Gesalatz, Deierrri, Abartzuza, Jaitz eta Lezaun bezalako landa eremuko herrietan bizi diren emakume batzuen errealitatea erakusten da. Haietako ordezkari bat eta Andia Mankomunitateko teknikaria gurera etorriko dira, gainera.

Eta hurrengo ostiralean, izugarritzko kontzertu bat: **Diego Vasallo, Duncan Dhu talde ospetsuaren sortzailetako bat**. Diego Vasallo, zalantzarik gabe, gure musika panoramako artista berezietako bat da. 1997An, Duncan Dhu taldea banatu ondoren, bakarkako ibilbideari ekin zion Diegok eta, orduetik, bederatzi album argitaratu ditu. Bere musikak soinu introspekzioa bilatzen du eta testuek kantuetan pisu handiagoa dute, folkaren, bluesaren eta

rockaren sonoritateak unibertso pertsonalera hurbilduz, sakonera poetiko eta existenzial handiko letrekin. Bere musika gozatzeko aukera paregabea *Malo ni bueno* lan berria kaleratzen denean, hain zuzen ere. **Urriaren 27an, 19:00etan Larraitzarko Gizarte Etxean** izango da kontzertua eta adi, sarrera libre da, edukiera bete arte, beraz puntual izatea gomendatzen dugu.

Hilea bukatzeko, berriro umeei zuzendutako jarduera bat: **LIBURU MAGIKOA** ipuin kontaketa, Prospero teatro taldearen eskuz: txikitan abandonatutako etxe batean sartu ondoren, gure ipuin kontalariak liburu magiko bat eskuratuko du. Honen laguntzaz, Lolo ezagutuko dugu, ohe azpian bizi den munstro bat. Lolo, haurren beldur da, eta Margarita, gaiztakeriarik egiteko gai ez den sorgina ere agertuko zaigu. Adi kasu honetan umeen adinari (4-7 urte, gutxigorabehera), ordutegiari eta lekuari: **17:30etan Erripako kontzeju etxeko aretoan** izango da (ez konfunditu udaletxearekin, etxe hau herriaren barne dago).

Programazio eder bat, beraz. Eta batek daki, agian inoiz Duo Dinamiko taldeak ere gure aretora hurbilduko da.

 **Patxi Irurzun,**
Ultzamako liburuzaina



2023ko abuztua edo agorrilean

2023ko abuztua edo agorrilean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

IMOTZ Etxaleku

Alen Willer Leyva Sirete, **Fidelen etxean** jaioa abuztuaren 21ean. Alexander eta Carolinaren semea.



▲ Alen Willer

ULTZAMA Gorrontz-Olano

Nile Ostitz Nuñez, abuztuaren 3an sortu **Jaxintonean**. Iñaki eta Aneren alaba.



▲ Nile, Aiur anaitxoaren mendean!

Ezkontzak:

Guk dakigula, abuztuan ez dugu ezkontzarik izan.

“ Zorionak gurasoei ”

Heriotzak:

ANUE Egozkue

Juan Aleman Larregi, **Joaneseneko edo Joantxeneko** nagusia, agorrilaren 10ean hil zen 79 urtetan.



▲ Juanito Aleman

IMOTZ Eraso

Juliana Jaunarena Urbiztondo, **Bidarteko** alaba, abuztuaren 21ean hil zen, 94 urtetan.



▲ Julia deitzen zuten


ULTZAMA Lizaso

Jose Maria Ermigarate Zenotz, **Ermigarate dendako** semea, abuztuaren 5ean hil zen, 51 urtetan.



JM Ermigarate

Modesta Lakuntza Ostitz, **Deskargebideko** etxeakoandrea abuztuaren 29an hil zen 88 urtetan.



▲ Modesta Lakuntza

Etsain

Jose Maria Ripalda Agorreta, **Jaidiako** nagusia, abuztuaren 23an hil zen 93 urtetan.



▲ Jose Mari

“ Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna. ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karricolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



Nafar hegoaldeko
uzta euskarari puzka



Eskatu
saskia!

10 urte bete-bete

urriak 20 - azaroak 9



Balioaren %25 Nafarroa hegoalde
eta erdialdeko euskalgintzara
bideratuko da.



errigora.eus

